

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Barkos Lehendakaria eta Ayerdi lehendakariordea Nafarroako Merkataritza Ganberako ordezkariekin bildu dira

Foru Komunitateko garapen ekonomikoari buruzko hausnarketak trukatu dituzte

Jueves, 24 de septiembre de 2015

Nafarroako Gobernuak eragile ekonomiko eta sozialekin egiten ari den kontaktuen errondaren barnean, Barkos Lehendakaria eta Garapen Ekonomikorako lehendakariorde Manu Ayerdik Nafarroako Merkataritza, Industria eta Zerbitzuen Ganberako lehendakari Javier Taberna hartu dute gaur goizean, bai eta korporazio horretako Batzorde Exekutiboa ere. Foru Komunitateko garapen ekonomikoari buruzko hausnarketak trukatu dituzte haiekin guztiekin, merkataritza eta turismoaren gainean bereziki.



Barkos Lehendakaria eta Ayerdi lehendakariordea Nafarroako Merkataritza Ganberako kideekin.

Bileran zehar, Nafarroako Ganberaren foru-legean oinarritutako akordio-marko bat sinatzeko aukera mahai gainean jarri da, eta osagarritasuna sortuko duena gizartearen interes orokor eta ekonomiaren mesedetan nazioartekotze, berrikuntza nahiz lehiakortasun, prestakuntza, ekintzailtza eta industria-jarduerarako ekintzen bidez. Gobernuak Ganberari proposamena aztertuko duela helarazi dio.

Nafarroako Gobernuak azpimarratu du garrantzitsua dela Foru Komunitatea garatzeko oinarritzko arloen plan estrategikoak planifikatu eta egitea; halaber, haiek elkarriketa eta adostasunaren bidez era integratzailean kudeatu nahi dituela nabarmendu du. Bi erakundeek etengabeko komunikatzeko bideei eusteko oinarriak finkatu dituzte.

Ganberako lehendakari Javier Tabernak azaldu duenez, Nafarroako Ganbera kontsulta-organo bat da, Administrazio Publikoekin elkarlanean aritzen da, eta merkataritza, industria nahiz zerbitzuen interes orokorrak defendatzen ditu; hala, parametro horiek babestuz era leialean lan egingo du Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean.